

PROGRAMA
EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2023



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao

#artebisualak #eskultura #gorputza

Karlos Martínez B.

Lock&Key


Artistaren aurkezpena, Aimar Arriola Azkuna Zentroko ikertzaile AZkidearekin batera

Karlos Martínez B.k marrazkitik eta bi dimentsioetatik lantzen du eskultura; prozesu horretan, bolumena planotik gorpuzten da. Duela gutxi, beste testuinguru batean, artistak esan zuen bere egungo lanean arreta eman nahi ziola bere desioari, harrapatu nahi zuen, eta zalantza zuen hori posible ote zen. Susmoa zuen desirak lotzeak haien menpe egotea dakarrela gehienbat.

Topaketa honetan, [Karlos Martínez B.k](#) eta [Aimar Arriola](#) komisarioak ariketa ireki bat proposatuko dute nork bere desioak lotzeko. Gainera, egun bat lehenago, eta *Forma desira* programaren barruan, Karlos Martinezek landinamika bat planteatuko du, interesatuei zuzenduta eta publikoarentzat itxia (informazio gehiago [azkunazentroa.eus](#) webgunean).

Bi jarduerak elkarrekin funtzionatzen dute, segurtasun-sarraila baten engranajearen moduan, non elementu batek bestea mugiaratzen duen.

Proposamenak amaiera ematen dio *Forma desira* lanari, Aimar Arriolak Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa jorratu duen programazio publikoari eta ikerketari.



Prozesuaren irudia

MAIATZAK 9, ASTEARTEA

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

KARLOS MARTÍNEZ B.

(Bilbao, 1982) Eskultura-ekoizpenean oinarritu izan da bere lana. Hauek dira banaka egin dituen oraintsuko erakusketak: *Gaps & Corners*, Nadie Nunca Nada, Madril (2023); *Un agujero en el cielo*, Arte eta Historia Museoa, Durango (2022); *Black Patterns*, Carreras Múgica, Bilbo (2021); *Vaciados*, Taca, Palma de Mallorca eta ANTI, Bilbo (2020). 2023ko otsailean Madrilgo Reina Sofía Museoaren Bilduman sartu da bere lana.

